

‘D+’ eredia = etxean + hezkuntzan + aisia



IÑIGO OTXOA FERNANDEZ
AITA ETA EUSKALTZALEA

Deredua, Nafarroako ikastetxeetan behintzat, bizikidetzaren faltsu eta tranpati baten izenean, ereduak nahasten hasi direnetik (Eredu mistoen sustapena: 2019-2023ko Programa Akordioa, 3.1 apartatua, 32. puntua), eta ingelesari ordu gehiago eta lehenagotik (PAI) ematen diotenetik, “D-“ eredia bilakatzen ari da. “D-“ ereduarekin, hau da, murgiltzearen oztopatzearekin eta euskararen disoluzioarekin, D ereduarekin lortzen ziren helburuak ere ez lortzeko arriskua daukagu. Gogora dezagun, gaur-gaurkoz, gaztelera nagusi den herrietan behintzat, D ereduarekin, euskara ulertu eta erabiltzeko gaitasun orokorra lortzeko zailtasunak handiak direla. Eta gogora ditzagun soziolinguistika datu orokorrak: ezagutza gora doa nabarmen eta erabilpena mantendu edo beherako joeran dabil. Iruñerriko kasuan, erabilpena salto egiteko zailtasunak nabarmenak dira, noiz eta geroz eta euskaldun gehiago gaudenean. Behar duguna, beraz, “D+“ eredia da, galdera honetatik sortzen den eredia: zure haurrak euskaraz egitea nahi duzu edo nahikoa duzu ulermen gaitasunarekin?

Komeni da aipatzea, eredu mistoen gainean kritikoa agertzen naizenean, hainbat tokitan lortu den D ereduaren ezarpenaren ondorioz ezarriko den ereduaren bizikidetzaz ez naizela ari (Allo, Castejon, Mendigorria berriki,...). Nafarroako erdiguneko betaurrekoetatik begiratuta, euskararik ez zegoen tokian, euskarazko adar baten lorpena, onartu eta txalotu beharreko aurrerapauso bat da. Euskaraz funtzionatzen zuen ikastetxe bat eredu misto batera pasatzea, or-

Zer da orduan “D+“ eredia? Hezkuntzak eskaintzen duen D ereduari, guraso, langile eta eragile euskaltzaleon kontzientzia euskaldunari esker sortutako gehigarria eredu estraofizial berri bat izateraino

dea, atzerapen bat da, are gehiago, euskara hutsez funtzionatzeko ikastetxeak edukitzeko biztanleria nahikoa duten udalerrietan, Iruñeko haur eskoletan bezala.

Zer da orduan “D+“ eredia? Hezkuntzak eskaintzen duen D ereduari, guraso, langile eta eragile euskaltzaleon kontzientzia euskaldunari esker sortutako gehigarria, eredu estraofizial berri bat izateraino ailegaten dena. D+ ereduak, gehiegi sakondu gabe esanda, euskararen transmisiorako, hezkuntza arautuko D eredia hobetu eta hezkuntzatik haratago dauden transmisio multzo batzuetan eragiten du: etxeko giroa eta aisia.

Etxeko giroan eragiteko, eskolak, guraso elkarteak eta tokiko eragile euskaltzaleek haurrentzako materialak, jolasak, ipuinak, telebista edo internet saioak... proposatuko dituzte.

Hezkuntza arautuan, euskararen erabilpena helburu duen euskara plan bat

du. Horretarako, hezkuntzako langileek, euskaraz eta euskaratik lan egiteaz gain, gurasoekin dituzten bileretan, gurasoekin batera, haurren euskara plana egokitu egiten dute, eboluzioa aztertuz eta beharrezko baliabideak eskainiz. Euskara etxetik dakarten umeak indartuko ditu euskarari eutsi diezaioten. Eta etxean euskararik ez duten umeak lagunduko ditu.

Aisiak berebiziko garrantzia hartuko du. Haurrentzako euskarazko eskaintza oparora eta askotarikoa izan behar da. Euskara eskolatik haratago identifikatzeak izugarriko garrantzia dauka. Euskara eskolaz kanpoko jardueretara, kultur agendara, opor garaietara, komertziora, kirolera... ailegatzea.

Gogora dezagun, Kike Amonarrizek bere liburuan erakutsi digun “bidegurutzean” gaudela. Eta gure gaurko kudeatzaileek, harrigarria bada ere, “euskaltzale” batzuen laguntzaz, Irlandako gaelikoaren bidea erakusten digutela: ezagupenean zabalduz doana baina normalizaziorik lortzen ez duena; folklorea geldituko dena; itzaliz doana arnasarik gabe geratu arte. Guk, Iruñerrian, badugu gure bidegurutze propioa ere, erabilpena salto egitearena edo euskara erabiltzeko oinarri minimoak ere ez lortzearena. Begiak irekiz gero, badira baikor egoteko arrazoiak. Geroz eta gehiago gara, euskara etxean duten geroz eta ume gehiago daude, badira kultur, merkataritza, aisialdi eta lagun-arteak zirkuituak... Arazoak jabetu, ahaldundu, kontzientzia euskalduna gureganatu eta ekintzarako beharrezko indarra lortzea da gakoa. “D-“ edo “D+“, nik nahiago positibo. ●